

HIZNET SAKONTZE SAIOA

Lau Haizetara Elkartea
etorkizunerako urratsak

Errenteria / Orereta
2002ko uda

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
1. SARRERA	3
2. LEHENENGO URTEAK	4
2.1. HAMAR URTEKO HISTORIA LABURTUA.....	6
2.2. GOGOAN HARTZEKOAK.....	5
3. EGUNGO EGOERA	12
3.1. ELKARTEARI BEGIRA.....	13
3.2. ELKARTEAREN DIAGRAMA.....	20
3.3. LANTALDEZ LANTALDE.....	21
4. ETORKIZUNERAKO LAN AUKERAK	36
4.1. ELKARTEARI BEGIRA JARRITA.....	37
4.2. ESPARRUZ ESPARRU AZTERTUZ GERO	42

1. SARRERA

2002. urte amaieran hamar urte beteko ditu Lau Haizetarak. 1992ko abenduan, ibilbide berri bati ekin zioten herriko hainbat euskaldun eta euskaltzalek eta Arrasate, Eibar, Tolosa, Donostia eta Lasarte bezalako herrietako esperientziei jarraituta Lau Haizetara euskaldunon elkarte eratzearabaki zuten, gure herrian euskara bilgune izan zedin; ordu hartan euskaldunak eta euskararen aldeko elkarteen jarduna baterabiltzea zen helburua eta helburu honek bere horretan dirau 10 urte beranduago.

Hamargarren urtemugaren baitan ekintza eta jarduera desberdinak burutzeko asmotan lantalde bat biltzen hasia da udaberriaz geroztik eta 10.urtemugaren baitan elkarteko bazkide, lantaldekide eta gainerako herriko euskaltzaleei begira gogoetarako gune bat antolatzeko enkargua egin didate. Hau honela, hasteko euskalgintza eta bereziki euskara elkartegintza ardatz hartuta hainbat pertsona gonbidatzekotan gara euren ikuspegia eman dezaten; iritzi eta esperientzia hauek jaso ostean Lau Haizetara gogoetagai hartu eta emandako urratsen gainean hausnartzeko beta hartuko dugu; lan hau bigarren eginkizun honetarako prestatu dut.

Datozen orrialdeetan lau ataletan banatutako lan bat aurkituko duzu. Hasteko elkartearen lehenengo urteen azaleko deskripzio batekin egingo duzu topo, lehenengo urratsak zeintzuk eta nolakoak izan ziren gogoratu nahi izan ditut, gerora elkarteak hartu duen norabidean erabakiorrak izan direlako. Ondoren, egungo Lau Haizetararen deskripzio labur bat egin dut, orokorra elkartearena eta lantaldez-lantaldekoa, eta elkarteko hainbat kideren laguntzaz bakoitzarekin AMIA metodoaz baliatuz indarguneak, ahulguneak, mehatxuak eta aukerak argitzen siatu naiz. Eta amaitzeko, etorkizunari begira jarri eta hainbat aztergai jarri ditut hausnarketa-eztabaidarako eta hauen baitan zenbait proposamen egitera ausartu naiz.

2. LEHENENGO URTEAK

2.1. HAMAR URTEKO HISTORIA LABURTUA

1992. Behin Euskaldunon Egunkaria egitate bihurtu eta gero, hainbat euskaltzalek euskararen aldeko gunearekin jarraitzea erabaki dute, herrian euskalgintzan dauden hutsuneak bete nahian: gogoeta egin, kolore guztietako euskaldun jendea bildu eta euskara elkartearen eraketa abian jarri da. Azaroan ehunetik gora euskaltzalek Lau Haizetara euskaldunon elkartea sortu dute, euskaldunak bildu, bilguneak landu, hiztunen komunitatea baterabiltzeko asmoz. Kike Eizmendi elkarteko presidente izendatu du bazkideen batzarrak. Goiko Kalean jarri du behin-behineko egoitza elkartek.

1993. *Ostiral Kulturalak* ekimena abian jarri da urtarrilean. *Soziolinguistika ikastaroa* antolatu da euskalgintzako eragileen prestakuntza gisa. Lau Haizetara ofizialki eratuta geratu da. *Xenpelar* bertso eskola Lau Haizetararen egituran sartu da, Joxeluis Maritxalar eta Joxeluis Zabala bazkideen ekimenez. Txirrita bertsolariaren oroigarri, herri ekitaldia antolatu da. Xalbador Zapirain “Ataño”-ri *omenaldia* egin eta Lau Haizetarako euskaldunon elkarteko ohorezko bazkide izendatu da. *Zapirain Anaiak V.* bertso paper lehiaketa antolatu du Xenpelar eskolak, elkartearen barruan lehen aldiz, hamazazpi urtetik gorakoei zuzenduta. *Bertsolariya* urtekaria kaleratu du Xenpelar eskolak, Lau Haizetararen barruan lehen aldiz. *Lau Haizetara* hiruhilabetekariaren lehen zenbakia kaleratu da, Gema Lasarte eta Ane Lardi bazkideen koordinaziopean. Elkartearen sortzaile Iñaki Alberdi hil da.

1994. *Lau Haize Gazte* taldea sortu da Lau Haizetaran, gazteen artean euskarari eragiteko. *Xenpelar kultur astearen* antolaketa Lau Haizetararen esku geratu da, zazpi urtetan segidan AEK-k antolatu ondoren. *Ipar Euskal Herria txirrin*duz gazte ekimena antolatu da. *Erosi euskaraz* ekimena abian jarri da Aste Santuko oporraldian gaztetxoei zuzenduta.

1995. *Euskararen Erabilera Sustatzeko Hitzarmena* sinatu da herriko hamabost elkarterekin. Lau Haizetara *hilabetekari* bihurtu da. *Oarso Telebistaren* aurreproiektua idatzi da, Gema Lasarte bazkidearen zuzendaritzapean. Xenpelar bertso eskolako kide Ibon Zabala hil da istripuz. *Gaztain Erre* festa eta *Karakola eta barea* jolasa lehen aldiz antolatu dira. Makazagari omenaldia egin zaio, Xenpelar bertso eskolaren ekimenez. Lau Haizetarak Migel Irastorza haur eskola zaharreko instalazioetan jarri du *egoitza berria*, Pontika auzoko goialdean, Errenteriako Udalak lagapen bidez eskainita. *Bertsozale Eguna* antolatu da. Xenpelar bertso eskola Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteko kideen artean sartu da.

1996. Hitano ikastaroa antolatu da. *Euskara Elkarteen eta Herri Aldizkarien Topagunea* federazioaren sortzaile eta partaide da Lau Haizetara. *Ttakalo* herriguneko udal ludotekaren ardura hartu du. Ane Lardi elkarteko koordinatzaile lanean hasi da. Oarso Telebistaren proiektua aurkeztu da jendaurrean. *Euskal deituren euskal grafia* kanpaina abian jarri da. Euskararen Udal Ordenantza onartu du Udalbatzarrak, eta Lau Haizetarak aurkeztutako 19 iradokizunetatik 11 onetsi. Errenteriako Gazte Asanbladarekin elkarlanean, *Ipar Euskal Herriari buruzko Astea* antolatu du Lau Haizetarak.

1997. Imanol Miner elkarteko koordinatzaile lanean hasi da, Ane Lardiren ordez. Barne antolaketa egin da elkartean, eta plangintzaren metodologia sartu du ohiko lan jardunean. Xenpelar bertso eskolak 10. urteurrena ospatu du. Xenpelar X. Kultur Astea antolatu da. Lau Haizetara elkarteak bost urte egin ditu. Mikel Azkarate elkarteko presidente izendatu dute. Bailarako Pedagogi Aholkutegia (PAT) eta Oarsoaldeko Euskara Batzordearekin batera, haur eta gazteen euskararen erabilpena areagotzeko programan parte hartzen du Lau Haizetarak.

1998. Ikastetxeetako euskara taldeak elkarlanean hasi dira, Lau Haizetararen eskutik. Madalen jaietan txosna jarri da, Egunkaria eta Oarso Fundazioarekin batera. Madalenetako Pegatina Lehiaketa eratu da. Udal Euskara Batzordea eratzeko proposamena aurkeztu du Lau Haizetarak Errenteriako Udalean. Herriko euskaltegiekin batera, *Matrikulazio Kanpaina* antolatu du Lau Haizetarak, Udalaren babespean. Euskararen aldeko entitateak *euskalgintzaren gunean* hasi dira elkarlanean, kolaborazio estuan aritzeko asmoz. Xenpelar XI. Kultur Astean Koldo Mitxelena Elissalten figura goretsi da, haren heriotzaren 10. urteurrenean, unibertsitate eta kultura munduko pertsonekin aste monografikoa antolatuta.

1999. Kultur Errotako ekitaldi zikloa eratu da. Publizitatearen arloan hizkuntz erabilerari jarraipena egin zaio. *Txantxangorri* I. bertso sariketa eratu du Xenpelar bertso eskolak, bere baitan trebatutako bertsolarien maila neurtzeko aukera emanaz; era berean, *Ibon Zabala* I. bertso paper lehiaketa eratu du, Oarsoaldeko gaztetxoei zuzendua. Kilometroak ikastolen jaia antolatu da herrian, eta *Euskal Kultur Sortzaileen Gunea* jarri du Lau Haizetarak zirkuituaren barruan, Iruñeko Karrikiri euskara elkartearen laguntzaz. Oarsoaldeko Euskara Batzordearekin batera, *Begirale Ikastaroa* antolatu du elkarteak.

2000. Salvador Zapirain “Ataño” idazlea eta ohorezko bazkidea hil da. *Biziberritze saioa* antolatu da Lau Haizetaran, eta horrela elkarteko partaideen hausnarketarako barne mintegia eratu da. *Haize Berri* barne buletinaren lehen zenbakia argitaratu da, bazkideei eta kolaboratzaileei aldizka elkartearen berri emateko asmoz. Haur eta gaztetxoek eskola-

orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko, *Eskolatik Kalera* programa abian jarri du Lau Haizetarak, Udalaren babesean, eta herriko hainbat elkarte eta ikastetxeren partizipazioaz; Olatz Mirandak programa koordinatuko du. Libe Ibañez Lau Haizetara aldizkariaren koordinazio lanean hasi da.

2001. AEK-k antolatutako Korrika dela eta, Xabier Olaskoaga euskaltzalea omendu du Lau Haizetarak, bai eta ohorezko bazkide izendatu ere. Eskualdeko beste herri aldizkari euskaldunekin eta Oarso Fundazioarekin batera, *Kolore* komunikazio taldea sortu da, hedabide horien publizitate eta irudi lanak bateratzearen. Koldo Mitxelena plazan jarri du egoitza berria elkarteak, Pontika gaineko Migel Irastorza haur eskolan sei urte eman ondoren. Iñigo Susperregi koordinatzaile lanean hasi da, Imanol Minerren orde. Euskaldun berriei laguntzeko *Mintzalaguna* programa martxan jarri du Lau Haizetarak, herriko euskaltegiekin batera eta Udalaren babesean; Larraitz Etxepetelekuk programa koordinatuko du. *Lau Haizetaratu* bazkidetza kanpaina egin da.

2002. Xabier Zabaleta elkarteko presidente izendatu du bazkideen batzarrak. Lau Haizetarak Santsoenea kaleko *Kanttalen* etxera aldatu du egoitza, euskaldunontzako zerbitzua hobetuko duelakoan. Iñaxito Albisu euskaltzaleari omenaldia egin zaio, euskalgintzan eta, beraz, gizartegintzan egindako bidea goraiapatuta. *Zirrikitu* haur eta gazteen taldea sortu da elkartearen barruan. *Euskal Herriak Ezagutuz* saio berriaren barruan, Donibane Garaziko Irulegiko Irratiarekin harremana eratu da. Bertso-kritikako ikastaroa antolatu du Xenpelar bertso eskolak. *Eskolatik Kalera festa* antolatu du Lau Haizetarak, Errenteriako Udalarekin eta herriko hainbat elkarte eta ikastetxerekin batera. Bailarako beste herri-hedabide euskaldunekin batera, azterketa orokor bat egin da Oarsoaldeko Multimedia Egitasmoa prestatzeko; zehazki, eskualdeko astekari bateratu baten aukera aztertu da.

2.2. GOGOAN HARTZEKOAK

- **Partaidetza eta jarduera**

Elkarteak bere sorreran ez zuen behar bezalako azpilana egin euskaldunak bildu eta irizpide jakin batzuren inguruan artikulatzen eta bildu zirenetatik gutxik jarraitu zuten elkarteak sustengatzen. Ajuria Eneako hitzarmenaren urte gordinetan, herri izenaren aitzakiak eta orobat trasbertsalizaio politikoak erabat zapuztu zuten hasierako helburua. Ahuldade honetan eman zituen lehengo urratsak eta geroztik abiatutako egitasmo eta jarduera guztiak hipotekatuta abiatu ditu: elkarteak sendotu gabe aldizkaria sortu zen; elkarteak eta aldizkaria sendotu gabe telebista; eta elkarteak, aldizkaria eta telebista sendotu

gabe gainerako jarduera guztiak. Ondorioak datozen lerro eta orrialdeetan atzemango dituzu.

Hastapenetik elkartearen helburuetan, eginkizunetan eta egitasmo nahiz jardueretan oso jende gutxik sinetsi izan du eta ondorioz, elkartek presio ugari jasa(te)n ditu, inorena izan gabe guztien begietan baitago. Oso egurtua izan da urteetan pertsona desberdinengandik eta ez zaio honi guztiari buelta ematen jakin, ez ditu bere bizkarrak babestu izan. Elkarte ahula denaren ustea erabat zabaldua dago elkartetik kanpo bai eta barruan ere.

Politikakeriak erretako esparruetan beraz, baldintza zailegietan tokatu zaie lan egitea elkarteko kideei; honek guztiak zailtasun ugari eragin ditu baita elkartearen baitan ere. Ideiak eta eginkizunak erabat garbi ez edukitzeak eta elkartearen oinarrian pertsona gutxi egoteak bere ondorioak eragin ditu: motibazio galtzea, gutxiagotasun ustea, baliabide urriak, erakargarritasuna galtzea, egitasmoak aurrera eramateko ezintasuna eta denborarekin elkartearen beraren desegituraketa: lantalde bakoitza bere aldetik, elkarrenganako komunikaziorik eza, elkartearen helburuetatik urruntzea, etab.

Ondorioz, egitasmorik ezean ekintza puntualetara eta kanpañetara mugatu behar izan zuten lantaldeek lehenengo urteetako jarduna: *Ostiral Kulturalak*, *Erosi Euskaraz* ekimena, *Ipar Euskal Herrera txirringuz*, etab. Esperientzia ugari bildu dute elkarteko kideek 10 urte hauetan arrakastaz aurrera ateratako jarduerekin nahiz atera ez direnenkin.

Orain 5-6 urte elkartea gainbehera zihoala, bere egoera irauli eta biziberritzeko gaitasuna izan du. Barne konpaktazioa berariaz landu du elkartearen egitasmoaren zutabe nagusiak zedarriz, kudeaketa bateratuz, plangintza bidezko funtzionamenduak abiatuz, elkartearen bilakaeraren gaineko hausnarketa saioak antolatuz eta nagusiki pertsonen arteko komunikazioa landuz.

Bere ibilbidearen 7. urtetik aurrera (Lizarra-Garazi akordioaren ondorioz) gizarteko eragile nagusien (gizartegaietakoak, politikakoak, kulturakoak, etab.) begirunea eta onespina jasotzea lortu du. Jada ez da inoren etsaia, ez ezeren aurkakoa; iraganean ezagututako ezinikusiak gainditutzat jo daitezke, mesfidantzak tarteka begibistan agertzen badira ere.

- **Egoitza**

Lehenengo urratsak Goiko Kaleko 11.ean eman zituen, alokatutako areto betean, Torrekua Erdi Aroko dorretxearen sotoan hain zuzen ere. Aretoaren egokitasuna, mugak eta gastuak kontuan hartuta, udalari eskaera egin eta 1995ean Migel Irastorza ikastetxearen

eskolaurreko egoitzetako bat eskaini zuen, Pontikaren gainean, Igantzi kaleko eskilaretan. Han jarraitu zuen elkarteak sei urtez, 2001ean Koldo Mitxelena Plazan (Esmalterian) gela bat alokatu zuen arte. Elkarteak, herrigunetik urrun Pontika gainean sei urte luze egin ondoren berriro herrigunean zabaldu zuen egoitza.

Egoitza urte luzez herrigunetik urrun edukitzeak zuzenki eragin du (kalterako noski) lantaldeen eta orobat elkartearen jardunean. Egoitza Pontika gainean egon zeneko urteak izan ziren elkartearentzat bizitasun aldetik urterik makalenak eta ez kasualitatez. Egoitza harek ez zituen lanerako gutxieneko baldintzak ere betetzen. Esmalteriako egoitza zabaldu orduko gauzak aldatzen joan ziren: lantaldeak bilerak elkartearen egoitzan egiten hasi ziren, bazkideak eta herritarrak honetaz edo hartaz galdetzeraz gerturatzeko hasi ziren, lanerako gutxieneko azpiegitura atondu zen eta elkartean zerbait mugitzen ari zela ikus zitekeen.

- **Kudeaketa**

Hasierako urteetan kudeaketa lantalde bakoitzak bere kasara eramaten zuen, ez zegoen kudeaketa bateraturik. Honela, bertso-eskolak, aldizkariak, kultur lantaldeak bakoitzak bere kontuak zituen eta bere gisara antolatzen zituen. Ez zegoen inongo kontrolik eta ekonomikoki defizitarioa zen kasuren batean zuloa urtez-urte haundituz joan zen. Dirulaguntzen deialdietan parte hartzeko administrazioarekin hartuemanetan hastean ordea dirukontuak prestatu behar izaten zirenetan sekulako malabarismoak ezagutu ziren lehenengo urteetan. 1999an arazoari zegokion lekutik heldu eta kudeaketa bateratzea adostu zen eta elkarteko bazkide baten aholkularitzari esker zorrak kitatu eta martxa berri bat abiatu ahal izan zen. Geroztik elkarteko diruzainak gertutik jarraitzen ditu jarduera bakoitzaren arduradunarekin batera diru mugimenduak.

- **Diskurtsoa**

Sortu berriak ziren beste euskara elkarteen kasuan bezala, J.M.Sánchez Carrión *Txepetxen* teoriak erreferente garrantzitsu bat suposatu zuten elkartearen lehenengo urteetan ere: AEDra bisitak, soziolinguistika ikastaroak, etab. Elkartea sortu zela urtebete ere ez zen izango Iñaki Alberdi hil zenean, berak izan behar zuen nonbait elkarte sortu berrian diskurtsoa markatzen zuena eta *Txepetxen* ekarpenak gureratu zituena, izan ere berak ia osorik euskeratuta utzi zuen *Un Futuro Para Nuestro Pasado*.

Elkartearen sorreratik elkartearen diskurtsoa, ideologia, politika erakundeekiko ekidistantzia eta gisako kontzeptuak egon dira elkartea zuzendu dutenen ahotan baina hastapeneko urteak igarota eta Iñakiren ausentziaren eraginez ziur aski, nolabaiteko oinarrizko printzipioek

gidatu dute elkarteko kideen jarduna: “Gu ez gara inorenak”, “gu ez gara inorekin ezkontzen”, “guk ez diegu besteei euren esparruan zer egin behar duten esaten beraz besteei gurekiko berdin jokatzeari eskatzen dugu” eta gisakoekin urteetan funtzionatu da. Baina une jakinetan aurrera egiteko berariazko diskurtso bat barneratu eta haren arabera jarduteko premia begibistan agertu izan da.

- **Komunikazioa**

Komunikazioari ez zitzaion lehenetarik eman izan hatapen haietan elkartean. Elkartetik kanpora jardueraren berri izateko bazkideen gutunak eta aldizkarian argitaratutako albiste apurrak izan dira urteetan aukera bakarrak eta hauek ere eskasak, bazkideei gutun gutxi bidali izan zaizkielako eta aldizkarira elkarteko albiste gutxi eta berandu iristen zirenez (iristen ziren kasuetan) albiste gutxi eta labur argitaratzen zirelako. Gainerako gizarte eragileen kasuan hartuemanak beharrezko iritzi zaienean, beraz puntualki gertatu dira. Elkarteko lantaldeen kasuan ere, autonomia haundiz jarduten zutenez hartueman gutxi ezagutu dute urteetan, zuzendaritza izan da urteetan elkarren berri ezagutzeko gunea. Hasierako elkarte izaera ahultzen joan zen lantaldeek protagonismoa irabazten zuten artean.

Azken urteetan ordea urrats desberdinak eman dira gai honetan, elkartearen baitan topaguneak sortuz (hausnarketa saioak, txangoak, bazkari-afariak, parrandak etab.) elkarte izaera landuz, helburu amankomunei begira elkarren osagarri den lan baten irudia barneratuz, euskalgintzaren gunea sortuz herriko gainontzeko euskalgintzako erakundeen berri (eta eurek gure berri) izateko helburuarekin, gizarte eragile nagusienekin maiztaun jakin batez bilduz, etab.

- **Lan baldintzak**

1995ean aldizkaria hilabetekari bihurtzean, elkartean lehenengo liberazioak sortzen dira aldizkaria aurrera ateratzeko. Elkarteko eginkizunetarako 1996an sortzen da lehenengo liberazioa. Orduko egoitzak (Pontika gaineko parbularioak) ez zituen lanerako aski baliabide (ez bulegorik, ez ordenagailurik), herrigunetik urrun eta neguan hotza. Soldatei dagokionean egun erdiko liberazioak izanik oso kopuru txikiak izan ziren. 2000. urterarte soldata beretsuak mantendu ziren. Elkarteko koordinatzaileak esate baterako urte horietan garbiak 55.000 pztako 14 sari irabazten zituen gizarte segurantzaren barne. Aldizkariaren kasuan lan baldintzak ez ziren hobekiak, publikitateak beharrezko dirusarrerarik ematen ez zituelako. Hortik atera kontuak.

3. EGUNGO EGOERA

3.1. ELKARTEARI BEGIRA

3.1.1. Lau Haizetara euskaldunon elkarteak

Helburuak	<ul style="list-style-type: none">- Euskararen alde ari diren beste pertsona eta taldeekin batera, euskararen gizarte normalkuntza bultzatzea.- Euskaldunon arteko elkarlana ahalbideratzea.- Euskaraz bizitzeko aukerak zabaltzea.- Euskaldunon hizkuntza komunitatea egituratzea.- Herriko euskaldunentzat erreferentzia bat izatea.
Eginkizunak	<ul style="list-style-type: none">- Helburuei begira egitasmo bat onartu eta burutzea.- Plangintza bidez funtzionatzea.- Autonomia organikoa eta diskurtsiboa landu eta bermatzea. Egitasmoa eta jarduna, berdintasun eta osagarritasun irizpideetan oinarritzea..- Autonomia ekonomikoa lortu eta bermatzea.- Barne eta kanpo komunikazioa berariaz lantzea.- Barne eta kanpo konpaktazioa berariaz lantzea.- Elkartearen egitasmora euskaltzaleak erakartzea eta hauekin transmisioa eta formazioa lantzea.
Osaera	<ul style="list-style-type: none">- Bazkideen batzarra.- Zuzendaritza batzordea.- Lantaldeen koordinazio gunea.- Hedabideen esparrua: aldizkaria eta berripapera.- Haur eta gazteen esparrua: Eskolatik kalera eta Ttakalo ludoteka. Zirrikitu lantaldea sortze bidean.- Kultura esparrua: Kultur lantaldea eta bertsojaritza saila.- Alfabetatze-euskalduntze esp.: Mintzalaguna.

• Indarguneak

- Hasi besterik ez da egin, ia dena dago egiteko.
- Herrian lan egiteko beste estilo bat landu du elkarteak, konfrazioak gainditu eta batzen gaituzten gaietan indar eginez.

- Euskalgintzaren baitan politika erakundeekiko ekidistantzia bat mantenduz, diskurtso berri bat landu eta espazio berri bat zabaltzea lortu du.
- Barne konpaktazioan azken urteetan egindako lanaren emaitzak ikusten hasiak gara: Lantaldeak prioektu bakarraren inguruan artikulatzea lortu da, elkarte ikuspegia landuz. Jende berritze bat eman da. Gaur egun, 30 pertsona inguruk dihardute aktiboki lantaldeetan beste 20 laguntzailereren aldikako laguntzarekin.
- Kanpo konpaktazioari dagokionean, euskalgintzaren gunearen sortzaile eta suspertzaile lana, irabazi duen erreferentzialtasunaren erakusgarri da.
- Hedabideen inguruan egindako lana: aldizkariarekin lehenik eta telebistarekin beranduago.
- Herriko esparru desberdinetako bertsozaleak bildu eta dinamika berri bat abiatu du azken urteetan. Gerraosteko etena gaindituz bertsolari berriak sortu ditu bertso-eskolak.
- Herriguneko udal ludotekaren kudeaketa sei urtez.
- Eskolatik Kalera egitasmoa, udala eta herriko elkarteekin elkarlanean abiatu eta jarraitzea.
- Mintzalaguna egitasmoa herriko euskaltegi guztiekin elkarlanean abiatzea.
- Egoitza herrigunera ekarri izanak bazkide eta herritarrengandik hurbilago egotea eragin du.
- Geroz eta bazkide gehiago dira, bizpahiru urtetan bazkidetza bikoiztea lortu da.
- Ilusio eta motibazio momentu bat ezagutzen ari da elkarteak.

• Ahulguneak

- Elkartearen sorreratik elkarteak motel funtzionatu izan du: Elkartean bete-bete sinistu eta inplikatu diren kide gutxi izan ditu; bertako kideak beste hainbat jardueratan dabilta aldi berean.
- Euskaldungoaren konpaktaziotik urrun dago, politika trasbertsalizazioa haundiegia da baita euskaltzaleen artean ere. Elkarateak oraindik ez du lortu ezinbesteko duen sinesgarritasuna eta gutxieneko onarpena.
- Elkarateak ez dauka egitasmo orokor edo plan estrategikorik eta urtero berritzen den egitasmoa oso orokorra eta zehaztasun gabekoa da. Oraindik ez da plangintzen bidez lan egiten ikasi. Sarritan mimetismoz jokatzeko da beste herrietako ereduak kopiatuz.
- Profesionaltasun eza: elkarteak bere kideen aisialdiaren osagai bat da, ez da lana oso serio hartzen eta ondorioz bere eginkizunetan ez da erabat konpetentea; profesionalizatzeko asmorik ez da antzematen.

- Azken urteetako gizarteratze saioei esker urratsen bat aurreratu badu ere, Lau Haizetara zer den, zer nahi duen eta nola lan egiten duen ez dauka hain garbi herriko gizarte eragileetako jendeak (euskaalgintzakoek salbu) eta oraindik ere tarteka mesfidantza zantzuak atzematen dira .
- Elkarateak abiatutako hainbat jarduera-egitasmok porrot egin dute eta hori elkaratearen kaltetan izan da, sinesgarritasuna galtzea eragin du. Elkaratea ez da lan profesional eta konpetentearen eredu.
- Urteetan landutako berezko diskurtso berria transmititzeko formaziorako egiturarik ez dauka elkarateak eta gerturatzen diren kide berriak nahiko balduta aurkitzen dira.
- Elkarateak ez du autonomia ekonomikorik. Administrazio publikoarekiko dependentzia du. Kudeaketan ere asko du hobetzeko oraindik: defizitarioak ez izatea ez da nahikoa, diru irabaziak lortu behar dira ezinbestean. Sarrera-irteera kontzeptuak gainditu eta behar bezalako kontabilitate bat eramateko ez dago gaitasunik.
- Barne konpaktazioan urratsak eman badira ere, iraganeko akats eta esperientzia txarren ondorioz elkarateko zenbait kidek ez dituzte bere egin elkarateko helburua eta prozedurak eta inguruko ahaleginak desitxuratzen dituzte.
- Zuzendaritzak ez du beti elkaratea gidatzen, batzuetan beste lantaldeekin batera doa eta honek momentu jakinetan autoritatea galtzea eragin dio.
- Komunikazio plangintza baten beharra. Lantaldeen jarduna herrian ez da ezaguna.
- Elkarateak martxan dauzkan egitasmok ahul daude eta ez dute arrakasta nahikoa lortu. Lantaldeetan jende urritasuna dago, eginkizun guztietarako jende gutxiegi. Arazo hau ez da berriaz lantzen.
- Langileen lan baldintzek egonkortasun eza eragiten dute.
- Formazio ezak norberaren motibazioan eta elkaratearen barne konpaktazioan zuzenki eragiten du.
- Bazkide gutxi gara oraindik ere, 260.

- **Mehatxuak**

- Iraganean bezalako gainbehera bat gertatzeko arriskua.
- Jende berriak iraganeko akatsak errepikatzeko arriskua. Porrot berriak gertatzeko arriskua.
- Boluntarismotik atera ezinik egoera hau luzatzeko arriskua.
- Udalaren euskara gaietarako GKE bihurtzeko arriskua.
- Administrazio publikoetan gerta daitezkeen gorabeherak elkaratearen jarduna eta ekonomia-bideragarritasuna hankaz gora jar dezakete.
- Elkarate itxi baten irudia transmititzeko arriskua.

- Jarraipena eta belaunaldi berritzea ez dago bermatuta.
- Koordinatzaileen berritzeak erreleboa behar bezala ez egiteko arriskua.
- Elkartean integratu nahi ez dutenek besteen ahalegina hutsean utz dezakete.

- **Aukerak**

- 12 mila euskaldun inguru.
- Euskalduntasuna bizitzeko era berri, konsziente eta osasungarriago bat jorratzeko aukera.
- Gizartegintzan elkartegintza berri bat jorratzeko aukera.
- Berrogeita hamarretan Ereintza elkartearen inguruan eta hirurogeietan ikastolaren inguruan gertatutako konpaktazioa errepikatu eta behinbetirakotzeko aukera.
- Militantzia eta profesionaltasuna era osagarri batean jorratzeko aukera. Kudeaketa enpresa ikuspegitik jorratuz gero, ekonomia saneatu eta bideragarriago egiteko aukera.
- Autofinantziatziora urratsak emanez gero, egungo egitasmoak sendotu, berriak abiatu eta beste ekonomi dimentsioetan murgiltzeko aukera.
- Komunikazio plan baten diseinua elkartearen gizarteratze eraginkor bati begira.
- Herrian izandako esperientziatik abiatuz, bailara mailan euskara elkarte eta hedabideen esparruan eragile izateko aukera.

3.1.2. Zuzendaritza batzordea

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskara elkartearen jarduna, helburuen araberakoa izatea bermatzea. - Bazkideen batzarretan hartutako erabakiak aurrera eramatea. - Lantaldeen beharrei erantzun eta babes ematea.
Eginkizunak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera guztien jarraipena eta balorazioa. - Kudeaketa - Lantaldeen koordinazioa eta kohesioa. - Hausnarketa saioak eta formazioa. - Bazkideekiko komunikazioa. - Kanpo harremanak: Euskalgintzaren Gunea, Udal Euskara Zerbitzua eta Batzordea, etab. - Elkartearen egitasmoa eta jarduna gizarteratzea. - Diru-iturri berriak bilatzea. - Bazkidetza kanpainak. - Egitasmo berriak aztertu eta bideratzea. - Lantaldearen osasunaz arduratzea.
Osaera	<ul style="list-style-type: none"> - Lehendakaria: Xabier Zabaleta - Lehendakariordea: Iñaki Beltran - Diruzaina: Mikel Uria - Idazkaria: Ederne Lizaso - 1. bokala: Jon Ansa - 2. bokala: Xixilio Maritxalar

• Indarguneak

- Jardueren jarraipen eta balorazio bateratua lantaldeetako arduradun eta teknikariei esker .
- Kudeaketa zentralizatuz dirukontuak argi eta garbi eramatea lortu da eta ondorioz sinesgarritasunean irabazi du.
- Zuzendaritza berritzea lortu da, lantaldeetako eta elkartearen orbitako jendearekin.
- Elkartearen gaineko erantzunkizun nagusienei egoki heldu dien ekipoa: zuzendaritzako kideak eta koordinatzaileak elkarlanean.
- Eginkizunen banaketa zehaztua.

- Kanpo harreman onak eta iraunkorrak inguruko teknikariek bai eta euskalgintzako eragileekin ere.
- Elkartea gizarteratzen azken bi urteetan egindako saioak. Halaber bi bakidetza kanpainak.
- Egitasmo berriak baztertu gabe, lehentasuna elkarteko lantalde eta egitasmoen sendotzeari eman zaio.
- Borondate ona; giro ona, lanerako gogoia eta ilusioa.

- **Ahulguneak**

- Elkaratearen sorreratik zuzendaritzak motel funtzionatu izan du: Elkaratean bete-bete sinistu eta inplikaturako diren kide gutxi izan ditu; bertako kideak beste hainbat jardueratan dabiltza aldi berean.
- Esperientzia eta formazio maila desberdineko jendea eta elkarjartze eta transmisio /formazioarako gunerik ez dago.
- Erabakietan segurtasun eza. Momentu jakinetan autoritatea kolokan.
- Motibazio maila desberdinak eta beraz banatutako eginkizunekiko inplikazio maila desberdinak.
- Militantzia, boluntarismoa eta profesinaltasuna bezalako kontzeptuen nahasketa.
- Lantaldeen koordinazio eta kohesioan urrats sendoak eman badira ere ez dago erabat lotua.
- Diru iturri berriak jorratzera ez da iristen; eginkizun hau ez dago lehentasunen artean.

- **Mehatxuak**

- Iraganean bezalako gainbehera bat gertatzeko arriskua.
- Jende berriak iraganeko akatsak errepikatzeko arriskua.
- Trasbertsalizazio politikoak pairatzeko arriskua.
- Zuzendaritzaren jardun eta erabakiak ekonomi-menpekotasunak baldintzatzeko arriskua.
- Herriko euskalgintzan, bailarako beste euskara elkarte eta hedabideei begira dagozkion erronkei erantzun ezinik geratzeko arriskua.

- **Aukerak**

- Elkaratearen zerbitzuen profesionalizaziorantz beste urrats bat emateko aukera.
- Transmisioa eta formazioa lantzeko tailerra sortu eta
- Barne komunikazioa berriaz landuz barne konpaktazioan urrats berri bat emateko aukera.

- Herrian izandako esperientziatik abiatuz, bailara mailan euskara elkarte eta hedabideen esparruan zuzenean eragiteko aukera.
- Aholkulari taldea sortzekoa: Elkartetik igarotako pertsonekin osatua, ohorezko bazkide, zuzendaritzakide ohi nahiz lantaldekide, kolaboratzile... gaiak eskatzen duenaren araberakoa.

3.2. ELKARTEAREN DIAGRAMA

Ikus hurrengo orrialdean.

BAZKIDEEN BATZARRA

**ZUZENDARITZA
BATZORDEA**

Barne susperketarako lantaldea

Bazkidetza kanpainarako lantaldea

10. urteurrenerako lantaldea

**LANTALDEEN
KOORDINAZIO GUNEA**

**Hedabideen
esparrua**

Lau Haizetara
aldizkaria

Bestelako
argitalpenak:
Kilkir,
Muxutruk,

Haize Berri
berripapera

Oarsoaldeko
Multimedia
egitasmoa

**Haur-gazteen
esparrua**

Ttakalo
ludoteka

Zirrikitu
Aisialdi
Taldea

Eskolatik
Kalera

**Kultura
esparrua**

Bertsolaritza
saila

Kulturako
lantaldea

**Alfabetatze eta
euskalduntzea**

Mintzalaguna
egitaraua

3.3. LANTALDEZ-LANTALDE

3.3.1. Argitarapen esparrua

Lau Haizetara aldizkaria	
Sorrera urtea: 1994ko urtarrila	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">- Euskaldunok herriko albisteak euskaraz irakurtzeko aukera izatea.- Maiztasun ahalik eta haundienarekin kalitatezko aldizkari erakargarria argitaratzea.- Herritarrei herriko informazioa eman eta jasotzeko baliabide txukun bat eskeintzea.
Eginkizunak	<ul style="list-style-type: none">- Aldizkariaren maiztasuna handitzea. Hilabetekaria den artean, urtean 11 ale argitaratzea.- Jarduararen jarripena eta balorazioa.- Kudeaketa.- Kolaboratzaile talde zabal batez inguratzea.- Herritarrekiko eta irakurlearekiko hartuemana berariaz lantzea.- Diru-iturri berriak bilatzea.- Harpidetza kanpainak.- Lantaldearen egitasmoa eta jarduna gizarteratzea.- Egitasmo berriak aztertu eta bideratzea.- Lantaldearen osasunaz arduratzea.
Osaera	<ul style="list-style-type: none">- Koordinatzailea: Libe Ibañez- Erredakzio burua: Eñaut Mitxelena- Maketatzailea: Jabi Madariaga- Komertziala: Eñaut Gantxegi - Erredakzio taldea: Julen Etxeberría, Iñigo Susperregi, Oier Gillan, Irune Bengoetxea, Jon Maia, Arantza Iraola, Ana Serrano... - Hizkuntza Arduraduna: Xabier Zabaleta. - Argazkilariak: Eñaut Mitxelena, Iñaki Berrio.

• Indarguneak

- Konpromisoa: Hilero-hilero ale batekin 8 urtez hutsik egin gabe argitaratu izana.
- Hogeita hamabost mila biztanletik gorako eskualde burua den herri batean albiste faltarik ez dago.
- Egunkarietako kronikak kenduta, herriko informazio orokorra idatziz ematen duen aldizkari bakarra da.
- Zortzi mila irakurle baino gehiago. Euskaraz alfabetatu gabeek ere irakurtzen dute.
- Gaiak eta albisteak jorratzeko moduak, irekitasunak, aniztasunak, berdintasun eta osagritasun ikuspegiak proiektuaren autonomia bermatu eta gizarte eragile guztien onespina aitortzea eragin du.
- Publizitateari dagozkion dirusarrerak aldizkariari ekonomi egonkortasun bat emateko moduko igoera izan dute azken bi urteetan.
- Lau langilez osatutako lantaldea gehi erredakzio taldeko kideak eta kolaboratzaileak.
- Egoitza herrigunean dauka.

• Ahulguneak

- Zortzi urte eta gero, aldizkariak ez du maiztasunean urratsak emateko baldintza egokirik. Aspaldian astekaria behar zuen izan.
- Lantaldeko zenbait kidek ez dute bere burua elkartearen eta bere egitasmoaren baitan ikusten eta ez dute deus jakin nahi. Honek disfunzio ugari eragiten ditu lankideen artean eta produktuan berean, ez baita elkartearen diskurtsoa atzematen.
- Profesionaltasun eza: Lankide batek bere eginkizunak behar bezala betetzen ez dituenean ingurukoen jarduera baldintzaten du eta hau esate baterako epeekin maiz gertatzen da.
- Inkomunikazio arazoak eta bere ondorioak.
- Kudeaketa ez da kontabilitate moduan eramaten.
- Jarduera defizitarioa ez izatea ez da aski, publizitatean hutsuneak daude oraindik.
- Ez da egitasmo berririk jorratzen, bizirautea da helburua.
- Euskalkiak ez du lekurik.
- Erredakzio taldeko kide eta kolaboratzaileekiko arreta eskasa.
- Normalizatu gabeko lan baldintzak.
- Guztien begietan dago eta presio ugari pairatzen ditu alde guztietatik.

• Mehatxuak

- Gaztelerazko beste hedabide sasi-elebidun bat sortzeko arriskua.
- Lantaldeko kideren batek beste nonbaitera ospa egiteko arriskua.

- Erredakzio taldeko kideak eta kolaboratzaileak galtzeko arriskua.
- Egoera hau denboran luzatzeko arriskua.
- Bailaratik etorriko diren erronka berriei erantzun ezinean geratzeko arriskua.
- Egitasmoak erakargarritasuna galtzeko arriskua.

- **Aukerak**

- Pertsona berriak proiektura hurbiltzeko aukera
- Behetik gora aldizkariaren egitasmoa biziberritzeko aukera.
- Konpetenteagoak izateko egitura berrantolatu eta profesionalizatzeko aukera.
- Publizitate gehiago saltzeko aukera.
- Maiztasunean aurrera egiteko aukera.
- Lan baldintzak hobetzeko aukera.
- Irakurle kopurua areagotzeko aukera.
- Hizkuntza komunitatearen artikulaziorako tresna eraginkorra izateko aukera.
- Erdal komunitateari begira argitarapenen bat sortu eta gaztelatik beste aldizkari bat sortzeko mehatxua behin betirako gainditzeko aukera.

- Egoera hau denboran luzatzeko arriskua.

- **Aukerak**

- Pertsona berriak proiektura hurbiltzeko aukera.
- Maiztasunean aurrera egiteko aukera.
- Marketing estrategiak aztertzea.
- Elkartearen barne artikulaziorako tresna eraginkorra izateko aukera.
- Bazkideei begira zuzenean lan egingo duen lantaldea izateko aukera: berripapera, gutunak, lehiaketak, opariak, etab.

3.3.2. Haur eta gazteen esparrua

Eskolatik kalera	
Sorrera urtea: 2000ko iraila	
Helburua	<ul style="list-style-type: none"> - Herriko haur eta gazteen eskolorduz kanpoko jarduerak euskaraz eskaini daitezen lortzea.
Eginkizunak	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarteen zerrenda eta datuen fitxategia osatzea. - Herrian haur eta gazteekin lan egiten duten elkarte eta erakundeekin, bakoitzaren errealitatetik abiatuz, adostutako konpromiso zehatzekin hitzarmena sinatzea. - Adostutako konpromisoen jarraipena eta balorazioa egitea. - Etengabe eta ahal den neurrian konpromiso berriak hitzartzea. - Emaizten aurkezpena eta sinaketa publikoa - Eskolatik kalera! Jaialdia ikastetxe eta elkarteekin elkarlanean antolatzea. - Ikastetxeetako euskara arduradunekin elkarlanean aritzea. - Hitzarmena sinatu ez duten elkarte-erakundeekin harremanetan jartzea. - Begirale poltsa osatzea. - Lantaldearen egitasmoa eta jarduna gizarteratzea. - Lantaldearen osasunaz arduratzea.
Osaera	<ul style="list-style-type: none"> - Koordinatzailea: Olatz Miranda - Jarraipen taldea: Nekane Arriaga Leire Otaegi Olatz Telletxea Mikel Ugalde

• **Indarguneak**

- Elkartea, Udala eta herriko beste erakunde eta pertsonekin elkarlanean ari da helburu amankomun bati begira. Aurten hitzarmena 35 elkarte eta ikastetxek sinatu dute.
- Elkartearen gizarteratzeari begira, herriko beste erakundeek elkartearen berri jasotzen dute hartueman honi esker.

- Bilara mailan antolatutako programa da.
- Metodologiari dagokionean, bide luzea dago egina, beste esperientzietatik asko jaso du egitasmoak.
- Udalarekin adostutako lan-hitzarmenari esker gastuak kubrituta.
- Lantaldean, helduen eta gazteen arteko elkarlana eta giro ona.

- **Ahulguneak**

- Bi urtez koordinatzaile egon denak erreleboa eskatu du. Pertsona berri bat prestatu behar da.
- Taldean ez dago jendea soberan, gehiago balira hobe.
- Lan bolumen haundia eta ondorioz lanerako abiadura mantsoa eta harremanak behar bezain besteko kantitate eta kalitatearekin landu ezin izana.
- Lan bolumen haundiena koordinatzailearen bizkar geratzen da. Lanak ez dira egoki banatzen.
- Lan baldintza hauekin liberatuek alde egiteko arriskua.
- Oraindik hitzarmenean sartu ez den elkarte mordoska bat dago.
- Oraindik begirale poltsarik ez dago.

- **Mehatxuak**

- Herriko erakundeen aldetik, egitasmoari dagokion garrantzia ez ematekoa eta egoera sozio-politikoaren baitan lan-hitzarmena eteteko.
- Norbaitek huts eginez gero lantaldea larri geratzekoa.
- Liberatuak lan hobeago bat aurkitzen duenean alde egitekoa.
- Egoera hau denboran luzatzeko arriskua.

- **Aukerak**

- Pertsona berriak proiektura hurbiltzeko aukera.
- Lantaldekideek erantzunkizun haundienak hartzekoa.
- Ardura uzten duen liberatuak, lantaldean jarraitzekoa.
- Haur eta gazteen esparrua ongi landu ondoren, herriko elkarte guztiekin kontaktuak hasi eta prozesua herri mailako hitzarmen batera egokitzea.

Ttakalo Ludoteka	
	Sorrera urtea: 1996ko iraila
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">- 5-12 urte arteko haur eta gaztetxoei eskolatik kanpo, herrigunean, aisiaz euskaraz gozatzeko espazio bat eskeintzea.- Haur euskaldunak eta euskara ikasten dihardutenak jolasaren bidez interakzioan jartzeko gunea izatea.
Eginkizunak	<ul style="list-style-type: none">- Astegunetan arratsaldeko 17:15etik 19:15era 5-12 urte arteko haur eta gaztetxoentzako ludoteka zabaltzea.- Jardueraren jarraipena eta balorazioa.- Kudeaketa.- Ekintza osagarriak antolatzea.- Gurasoekin hartuemana berariaz lantzea.- Matrikulazio kanpainak.- Lantaldearen egitasmoa eta jarduna gizarteratzea.- Egitasmo berriak aztertu eta bideratzea.- Lantaldearen osasunaz arduratzea.
Osaera	<ul style="list-style-type: none">- Koordinatzailea: Rosa Lizarraga- Begiraleak: Mainer Sanchez Arrate Gaztelumendi Rosa Lizarraga

• **Indarguneak**

- Herriguneko udal ludotekaren kudeaketa 6 urtez.
- Urtetik-urtera geroz eta haur eta gaztetxo gehiago.
- Sei ikasturtetan arratsaldero arratsaldero hutsik egin gabe herriko ludoteka euskaldun bakarra aurrera atera izana.
- Zailtasun ugariren gainetik egitasmoa aurrera atera izana.

• **Ahulguneak**

- Udalak bere ludotekari eman dion tratamendu bereizgarria eta gutxiespenekoa: publizitatean, baliabideetan, arretan etab.

- Aurten amaitzen zen kudeaketa epea. Egitasmoa berritu eta esleipenera aukezteko elkarteak erakutsi duen gaitasun eza.
- Lantaldeko kideek elkartearekiko erakutsi duten inplikazioa, ahalik eta gutxienekoa. Funtzionarioen sindromea.

- **Mehatxuak**

- Aurreikus zitezkeenak bete dira.

- **Aukerak**

- Bi edo lau urte barru, hurrengo esleipenera egitasmo berri, osotu, kompetente eta bideragarri bat aurkeztea.
- Zirrikitu taldearen egitasmoan parte hartuz urrats berriak ematea.

3.3.3. Kultur esparrua

Bertsolaritza Saila Sorrera urtea: 1989 (1993an elkartean txertatua)	
Helburuak	<ul style="list-style-type: none">- Herrian bertsozaletasuna sustatzea- Bertsolaritzaren irakaskuntza adin eta maila guztietako bertsozaleei.
Eginkizunak	<ul style="list-style-type: none">- Haur gazte eta helduentzako bertsolaritza ikastaroa antolatzea.- Matrikulazio kanpainak.- Ekintza osagarriak antolatzea.- Jardueraren jarraipena eta balorazioa.- Kudeaketa.- Herriko bertsozaleekin hartuemana berariaz lantzea.- Lantaldearen egitasmoa eta jarduna gizarteratzea.- Egitasmo berriak aztertu eta bideratzea.- Lantaldearen osasunaz arduratzea.
Osaera	<ul style="list-style-type: none">- Taldekideak: Joxeluis Maritxalar Jon Ansa Mikel Aginaga Aitor Albistur- Laguntzaileak: Patxi Petirena Antton Kazabon Julian Albistur Joxeluis Zabala

- **Indarguneak**

- 13 urtez, Xenpelar Bertso-eskolaren bidez, herrian bertsozaletasuna sustatu du.
- Bertsolari berriak sortu ditu.
- Herriko bertsolairtzaren iragana gizarteratzeko saialdi ugari egin ditu.
- Gerraosteko etena gainditzea lortu du.

- Ereintza elkarteko bertsozale beteranoekin elkarlanean jardun izana.
- Azken urteetan bertsozaleen komunitatea trinkotzen egindako lana.
- Jarduera eta antolakuntzarako autonomia.
- Lantalde kohesionatua eta giro ona.

- **Ahulguneak**

- Azken urteetan urrats adierazgarriak eman badira ere, politikoki identifikatutako pertsonen lantaldearen gidaritza eraman izanak jende batzuren gerturatzea moteldu egin du.
- Lantalde honen ekintzak udalak diruz sustengatzen dituenek, autogestioa lehentasunen artean ez egotea eragin du. Eta ondorioz, lantaldearen nahiz elkartearentzat diru-sarrerak izan zitezkeen ekintzei ez zaie lehentasunez heldu.
- Herrian euskaldungoaren artean bertsolaritzak aukeran jende gutxi samar mugitzen du.

- **Mehatxuak**

- Herriko erakundeen aldetik, egitasmoari dagokion garrantzia ez ematekoa eta egoera sozio-politikoaren baitan dirulaguntza etetekoa.
- Trasbertsalizazio politikoa eta bere ondorioak.

- **Aukerak**

- Etengabe bertsolarien maila hobetzen eta bertsolari berriak sortzen hasitako bideari segida oparoa ematekoa.
- Bertsozaleen zabaldu eta gizarteratzeko bideak urratzen jarraitzeko: Bertso-eskolan bezala ikastetxeetan.
- Herriko bertsolaritzaren aktualitatearekin Bertsolariya boletin gisa berrargitaratzea (Lau Haizetara aldizkarian, gehigarri gisa).

Kultur lantaldea	
Sorrera urtea: 1992ko abendua	
Helburuak	- Herriko Kultur errealitatearen osagarri eta aberasgarri izango den euskarazko kultur eskaintza egitea.
Eginkizunak	- Xenpelar Kultur Astea, Kultur Errota eta Madalenetako Pegatinaz arduratzen da. - Ez dago definituta.
Osaera	- Ez dago definituta.

- **Indarguneak**

- Dena dago egiteke.

- **Ahulguneak**

- Ez dago kide finkorik.
- Ez dago egitasmo garbirik esparru honetan.
- Baliabide ekonomiko urriak.

- **Mehatxuak**

- Egoera hau denboran luzatzeko arriskua.

- **Aukerak**

- Behingoz kultur lantalde bat beharrezkoa den serioски planteatzea.
- Kulturgintzaren gunea osatzeko aukera, kulturgileek elkarren berri izan dezaten eta halaber herrian kulturgaien gaineko hausnarketa eta eztabaida eragiteko.

3.3.4. Alfabetatze-euskalduntze esparrua

Mintzalaguna	
	Sorrera urtea: 2001eko iraila
Helburuak	- Euskaldun berriei mintzakide euskaldun bat eskaintzea, euskaraz aritzeko aukera izan dezaten.
Eginkizunak	- Taldeak osatu eta programa martxan jarri. - Taldeen jarraipena egin. - Balorazioa egin, bai taldeen aldetik eta baita lantaldearen aldetik ere. - Programan parte hartzen duen jende guztia bilduko duten ekimenak burutzea.
Osaera	- Koordinatzailea: . Larraitx Etxepeteleku. - Laguntzaileak: . Jon Ansa (Xenpelar AEK) . Josune Izagirre (Ortzadar) . Ane Arretxe (Udal Euskaltegia) . Arantxa Etxezurieta (Udala)

• **Indarguneak**

- Herriko hiru euskaltegien, udalaren eta elkartearen arteko elkarlana.
- Elkartearen gizarteratzeari begira, mintzakideek elkartearen berri jasotzen dute egitasmo honi esker.
- Euskaldunen prestutasuna eta euskara ikasleen gogoia.
- Metodologiari dagokionean, bide luzea dago egin, beste esperientzietatik asko jaso du egitasmoak.
- Udalarekin adostutako lan-hitzarmenari esker gastuak kubrituta.
- Euskara ikasleentzat erabilera espazio bat euskaltegitik kanpo, ikasketa prozesua osatzen laguntzeko baliagarria.
- Euskaldunak bere euskalduntasuna hausnartzeko eta erabilera ohiturak zuzentzeko baliagarria.

- **Ahulguneak**

- Lantaldeko kideak, Lau Haizetara, euskaltegi eta udalekoak dexente lanpetuta daude.
- Lehenengo urtean espero baino eskaera txikiagoa izan du euskara ikasleen aldetik.
- Alfabetatze-uskalduntze esparruaren egitasmoa idazteke.

- **Mehatxuak**

- Herriko erakundeen aldetik, egitasmoari dagokion garrantzia ez ematekoa eta egoera sozio-politikoaren baitan dirulaguntza eteteko.
- Koordinatzailea erretzekoa.

- **Aukerak**

- Pertsona gehiagok parte hartzekoa.
- Berriazko lantalde bat mintzakide motibatuenek osa dezakete.
- Mintzalaguna sendotuta, Idazlaguna egitasmoa jar daiteke martxan.
- Festa eta ospakizunetarako kuadrila bat sortzeko aukera.
- Urte osorako kultur ekintzen egitarau bat osatzeko.

4. ETORKIZUNERAKO LAN AUKERAK

Atal honetan bi maila bereiziko ditut: batetik elkarteari bere osotasunean eragiten dioten eginkizunak eta bestetik esparruei dagozkionak.

4.1 ELKARTEARI BEGIRA JARRITA:

4.1.1 Elkartegintza

Lau haizetaran aurreko orrialdeetan agertu den bezala, jende eskasia dago, gutxi dira partaideak eta are gutxiago elkartean uste osoa jartzeko prest dauden pertsonak. Elkartean jardun dudan urte hauetan guztietan garbi ikusi dut oraindik ez dagoela ideia garbi bat elkartearen eginkizunaz, izaeraz etab. Eta honek noraeza eragiten du.

Elkartean jarduten duten pertsonen gehiengoak baita ardura nagusiak dituztenak ere, herriko beste (politika/erlijio/kultur/gizarte) erakundeetan jarduten dute eta erakunde horietan nagusi diren ikuspegiekin funtzionatzen dute euskaldunon elkartean bertan. Beste erakundeak kontsolidatuagoak izaki, partaide hauen bizitzaren erdigunean kokatzen dira eta euskaldunon elkartea berriz periferian. Antza denez Lau haiztara ez da hain premiazkoa edo elkarteak ez du aski motibazio sortzen.

Alegia, Lau Haiztararen baitan aurkitzen dira bere ahultasunaren gakoak. Elkarteak bere helburuak gizartean bertan jarriak ditu eta hasieratik bere jarduera guztia kanpora begira bideratu du, barruaz ahaztuta. Elkarteak gutxieneko baliabide eta azpiegiturak bermatu gabe abiatu ditu egitasmoak: Bazkide gutxi, partaide gutxi, laguntzaile gutxi, diru baliabide gutxi, egoitza desegokiak, lan baldintza kaxkarrak eta hala ere aurrera, ezjakintasuna oso ausarta delako eta ilusioak /motibazioak gainezka egiten duelako. Baina hamar urte igaro dira eta ez alperrik. Etxe barrua egoki atondu gabe gizarteko gabeziak konpontzen saiatzeak, gauza bat esan eta bestea egitea (koherentzia), ezjakintasuna (konpetentzia) eta ondorioz motibazio galtzea (kontzientzia) begibistan jarri ditu.

Elkarte barruan hurrengo lerroetan jorratuko ditugun gaietan urratsak emateak baldintzatuko du egungo eta etorkizuneko jarduera eta egitasmoen arrakasta.

4.1.2 Kudeaketa

Kudeaketari dagokionean, kudeaketa bateratu izanaren onurak ezagutu ditu elkarteak, baina oraingoa behin-behineko egitura du eta berandu baino lehen egokitzeko urratsak eman beharko ditu. Izan ere diruzain kargua aldatzea tokatzen denean arazo berarekin egingo du topo. Elkarteko jarduera guztien administrazioa liberatuetako batek eramatea litzateke egokiena. Elkarteko diruzainak eta beharrezko balitz aholkulari batek gertutik jarraitu beharko dituzte kontuak eta aldika edo hala eskatzen zaion bakoitzean zuzendaritzan egoeraren eta aurreikuspenen berri eman beharko du.

Halaber, diru-sarrera eta irteeren azalpena ez ezik egiazko kontabilitatea egiten hasteko garaia baduela pentsatzen dut baliabideen aurreikuspen eta kudeaketa zehatzago bati begira.

Bestalde dirukontuak egiterakoan diruzorrik ez egitea izan da orain arteko helburua eta honek arazo ugari eragin dizkigu urte hauetan guztietan. Elkarteak zerbitzu bat eskeintzen duen guztietan eta bereziki beste erakundeekin egindako lan hitzarmenetan irabazi margen bat aurreikusi behar du. Lau Haizetara ez da erakunde publiko bat, pribatua da eta bere eginkizunen artean autonomia, organikoa diskurtsiboa eta ekonomikoa planteatzen dituenez, diru kontuetan inorekiko menpekotasuna ekidin behar du. Eta hau lortzeko autofinantziaziorantz urratsak eman behar ditu.

Eta amaitzeko elkartearen jardunetan arazo, ezintasun edo muga batekin egiten da topo beti: dirukontuak, numeroak ongi menderatzen dituenik, administrazio eta kudeaketa ezagutzak dituenik ez dago elkartean. Enpresa eta administrazio gaietan ezagutzak dituen pertsona bat behar da orain arte bezala elkarteko kudeaketa eta sor daitezkeen egitasmo berrien diru-kontuetan galdutak ez ibiltzeko.

Etorkizuneko elkarteari buruz galdetzen didatenean, ikastolen sorreran emandako garapena datorrit gogora; ikastolak militantzian eta borondatezko lanean oinarritu izan balira, gaur ez lirateke dauden lekuan egongo. Egiturak egonkortu eta profesionalizatzerara jo behar dugu ahalik eta eredu orekatuenak hautatuz, bertikalidadeak ahal diren neurrian sahiestuz eta elkarte izaerari gauza guztien gainetik eutsiz.

4.1.3 Partaidetza

Elkarteko estatutuetan bazkidearen figura bakarrik aipatzen da eta bazkideak ere baldintza jakin batzuk bete behar ditu. Baldintza hauetatik kanpo geratzen den jendearen laguntza ordin nola artikulatu dezakegu? Bazkide jakinek aspaldi mahai gaineratutako gaia da hauxe baina orain artean bazkidetza bere horretan uztea erabaki izan da.

Laguntzailearen irudia sortzearen beharra berpiztu da azken hilabeteetan. Estatutuak eskuan gai hau berriro mahai gainera ekarri eta partaidetza arauak berrikustea proposatzen dut.

Gai beraren haritik, elkartean parte hartzeko modu asko daude: ekintzetan parte hartuz, sosak jarritz, noizbehinka zeozertan lagunduz, lantalderen batean iraunkorki parte hartuz nahiz liberatu gisa. Profesionaltasuna, boluntarismoa, militantzia, langilea, liberatua, partaidea, laguntzailea eta gisako kontzeptuen esanahi zehatza ez da ezagutzen eta horrek disfuntzioak eragiten ditu. Asko dago honen guztiaren gainean hitz egiteko eta ikasteko.

4.1.4 Komunikazioa

Elkartaren barne eta kanpo komunikazioaz gain barnetik kanpora eta kanpotik barrura egiten dena bereizi behar ditugu:

Barne komunikazioa, lantaldeetako kideengandik hasi, arduradun eta liberatuekin jarraitu eta zuzendaritzaraino eguneroko jardunean eraikitzen diren zubietan oinarritzen da. Eginkizun honetan lantaldeetako arduradun eta koordinatzaileek dute giltza eta euren esku dago sarritan informazio batek egin dezakeen bidea. Lantaldeetako kideetatik zuzendaritzara eta alderantziz informazioaren joan-etorriak etenik izan ez dezan neurriak hartu eta zaindu egin behar dira.

Haize Berri berripaperaren eginkizuna osagarria da eta horretarako maiztasuna areagotzea interesgarri litzateke gutxienez bihilabetekari eta ahal balitz hilbetekari beha luke izan. Baina elkarteko bazkideei ez ezik, bazkide ez diren lantaldeetako partaideei, euskalgintzako beste erakundeei, erakundeotako eragileei eta hedabideei ere bidaliko nieke.

Kanporako komunikazioari dagokionean, aldizkariak ere bere eginkizuna du. Aldizkariak elkartaren balio eta irizpideekin zipriztinduta behar du egon goitik beheraino. Aldizkariak hainbat informazio era aseptiko batean emateari utzi eta elkarreak berea duen diskurtso autonomo horretatik, ideologia bati baino gehiago ideien logikari jarraituz informatu behar du eta elkarreak sortzen duen informazioari tarte nabarmena eskaini behar dio, kultura eta gizarte gaiak lehenetsiz eta politikari soilik dagokion lekua eskeiniz. Hizkuntza komunitatearen artikulaziorako tresna eraginkor izan behar du.

Euskalgintzaren eta kulturgintzaren guneek komunikaziorako egiturak izan behar dute lehentasunez, gero gainerakoak. Lau Haizetarari dagokio bi gune hauek sortu eta koordinatzea hizkuntza komunitatearen artikulaziorako erabakiorrak izaki inork instrumentaliza ez ditzan. Gune hauetan informazio asko mugitzen da

eta elkartearen baitan informazioa sailkatu eta zabaldu beharrekoa zabaltzeko bideak sortzea garrantzizkoa da.

Gainerako gizarte eragileekin aldika mantentzen diren hartuemanen geroz eta garrantzi gahiago ematen zaie elkartean eta gai jakin nahiz orokorren inguruan errondak egiteko nolabaiteko ohitura sortua dago eta hori mesederako izan da.

4.1.5 Diskurtsoa

Autonomia organikoa, diskurtsiboa eta ekonomikoa eginkizunetan adierazita dago. Errealitatean ordea hau ez da horrela gertatzen eta diskurtsoarekin ere halatsu gabiltza, euskaltzale asko politikoki lerratuta daude eta bakoitzak bere batzokiko ikusmoldeari eutsi nahi izaten dio. Ezer berririk ez beraz.

Soziolinguistikak berebiziko garrantzia hartu du azken hamarkadetan gurean. Laurogeien azken urteetan eta laurogeita hamarren lehenengoetan euskara elkartean sorrerarekin J. M. Sánchez Carrión *Txepetxën* ekarpenek izandako harrera onak ez zuen segida bera izan hurrengo urteetan eta gutxik eutsi diote bide horri. Gure begiekin ikusi dugu herri askotako euskara elkarteak, nola kultur elkarte bat gehigo bihurtu diren eta nola fosilizatzen ari diren. Topagunea federazioaz ere luze hitz egin daiteke. Baina ekarpen horiek hor diraute eta azken urteetan Zenbat Gararen itzalpean argitaratutako lan berriekin lehenagokoak osatzen joan dira.

Bestaldetik azken urteetan lehenago EKB zena desagertu eta Kontseilua sortu da bere *bai euskarari* kanpaina, ziurtagiria eta herrietako plangintza estrategikoeekin; SEI elkarteak ere sortu da Soziolinguistikaren Euskal Institutua sortzeko xedearekin. Topaguneak ere ikastaro batzuk antolatu izan ditu eta UEUK ere bere soziolinguistika saila ere badu aspaldian lanean diharduena eta EHUKo Soziologia karreraren Hizkuntzen Soziologia espezializazioa aurrera ateratzea lortu zuten. Eta azkenik Jauraritza dugu bere EBPNeekin. Hainbeste egitura eta euskara elkarteek oraindik ez dute bere arduradunen formaziorako azpiegiturarik. Tira.

Arestian aipatutako erakunde gehienek ez dute zentrizidatik jarduten menpekotasunetik baizik, ekonomikoki baldintztuta daude erabat administrazioarengandik. Gainera erakunde politikoekiko duten menpekotasuna agerian geratzen ari da eta euskalgintzak pairatzen duen politika trasbersalizazioak bere horretan dirauela ikusten ari gara, horrek dituen ondorio guztiekin. Honen adierazgarri dira sabuespenak-salbuespen euskalgintzan nagusitu diren autokonplazentzia eta iritzi kritiko arrazoitu eta kontrastatuen ausentzia.

Bide berriak urratzen jarraitu beharra dago beraz. Ez naiz soziolinguistikan aditua, ez dut ikasteko azpiegitura egokirik topatu eta baliatu ditudanek ez naute erabat konbentzitu, ezta Hiznetek berak ere. Beraz aipatu erakunde nagusienek konszienteki boikoteatzen duten Sánchez Carriónen lanetan topatu dudak diskurtsoa barneratu eta praktikatzen saiatzeari aukera bat emango nioke. Onegia behar du izan nonbait gezur eta iruzurretan dabiltzanek hainbeste gorrotatzen badute.

4.1.6 Lan baldintzak

Elkarteak bere sorreratik bere baitan izan dituen langileek lan baldintza eskasak ezagutu dituzte eta honek arduradun desberdinen joan-etorria eragin du. Lau Haizetrak lan eta zerbitzu profesional bateruntz urratsak emango baditu, soldatak ere maila berean hobetu beharko ditu. Elkarteko lanak, lanorduez gain militantzia dedikazioa ere eskatzen du eta honek soldata txukun bat eskatzen du. Elkarteari aurrera begira heldu zaizkion erantzunkizunak ez dira txantxetakoak eta bertan jardungo duten pertsonen bizkarrak babestuak beharko dituzte eduki. Dirurik ez dagoela? Bazkide berriak bilatu beharko dira.

4.1.7 Egitasmo berriak

Ikerketa sustatu behar du elkarteak izan ere inguruko herrietan aurrea hartua dute aspaldian. Herriko euskalkien azterketa, forma alokutiboen azterketa gazte hizkerarako berreskuratzeari begira, hizkuntza komunitatearen bilakaeraren azterketa, erakundearen sorrera eta garapenaren ingurukoa, hizkuntz komunitateko kide esanguratsuen bizitzaren eta lanaren ingurukoak, ikerketa hauek ikastetxeetako ikasketa kurrikuluetan nola landu, etab. Izan ere udalak argitaratutako herriko historiaren liburuan euskaldunak ez garela esistitzen dirudi, nazionalismoarekin batera esnatu eta harri azpietatik atera garela dirudi; Koldo Izagirrek *Donostiako Euskararen Historia Txikia* liburuan bezala, gure historia berrinterpretatu eta berridatzi behar dugu.

Soziologi ikerketak, azterketa sinkroniko eta diakronikoak ezagutza, erabilera, matrikulazioak... etab. Soziologian eta orobat numeroetan aditu eta zeletuekin lantalde bat osatu eta buelta batzuk emateko moduko lana litzateke.

Eta beste egitasmoa, erdaldungoari begira lan egiten hastea. Gazteleraren glotofagia gainditzeko hedabide bat sortzea, ikastaroak, motibazio saioak eta sor daitezkenak, euskararen unibertsoaren berri gazteleraz izan dezaten. Aztertzeko modukoa litzateke.

4.2 ESPARRUZ-ESPARRU AZTERTUZ GERO:

4.2.1 Haur eta gazteen esparrua

Elkarteak bere zerbitzuen profesionalizaziorantz urratsak emanaz gero, haur eta gazteen esparruan zabaltzen diren aukerak haundiak dira, baita helduenean ere. Izan ere esparru hau haur eta gazteena bada ez da kapritxoaz, normalizazio ikuspegitik lehentasuna duten esparruak direlako baizik. Baina esparru honetan eman beharreko urratsak emanaz gero, aisialdia ikuspegi zabaletik (adin guztietako aisialdia) jorratuko duen esparrua izatera pasatzea litzateke normalena. Baina poliki-poliki eta urratsez-urrats.

Asteko Zirrikitu lantalde sortu berria antolatzeak izango du lehentasuna. Lanerako eremua zehaztu (ikastetxe, Pat eta bailarako euskara zerbitzuarekin martxan dagoen erabilera plangintza argigarria izango da horretarako) eta lehentasunak markatuko dituen egitasmo bat idaztea izango da lehengo lana. Gero egitasmo zehatzak diseinatu eta martxan jartzea etorriko da. Egitasmo zehatzei dagokionean, ikastetxeetako motibazio saioak, bailarako begirale ikastaroa eta ikastetxeen udako aisialdi eskeintza lantzen joan daiteke eta eskeintza desberdinak ere presta daitezke hurrengo ikasturtean zeharrerako. Azpiegitura egoki bat sortuz gero, udal aisialdi eskeintzaren hurrengo esleipenean egitasmo sendo bat aurkezteko modua egin ahal izango da.

4.2.2 Alfabetatze-euskalduntzea

Esparru honetan Mintzalaguna egitasmoa kokatzen da eta aurrera begira litekeena da alfabetatze-euskalduntzea esparru bezala desagertu eta kultur esparruan txertatzea, egitasmo honen euskarri nagusietako bat antolatzen dituen kultur ekintzak baitira eta ekintza hauek elkarteko bazkide eta inguruko euskaldunei zabal baitakieke.

Baina axaleko kontuak alde batera, lanerako eremu zabala duen egitasmoa da mintzalagunarena. Lehenago aipatu bezala, idazlaguna bezalako egitasmoak ere sortzeko aukera ematen baitu. Erabilera eremuei begira, gure herriko kuadrila, Bilboko konpartsa edo Nafarroako herrietako peña gisako bat antolatzeko aukera ere eman dezake; esate baterako, Zenbat Garakoen *Algara* kunpartsak oker ez banago gisako funtzioa betezen du. Alegia herriko ospakizun guztietan nahiz urtean zehar euskaldunak euskara ikasleekin festa-jarduera baten inguruan interakzioan jartzeko aukera emango luke eta euskara ikasleei euskaldunon harreman sareetan integratzeko beste aukera bat eskeiniko litzaieke. Pentsatzeko modukoa da.

4.2.3 Hedabideak

Uda honetan ezagutzera ematekoa da Oarsoaldeko lau udalek enkargatuta hedabideen gainean enpresa pribatu batek egindako plan estrategikoa. Itxura guztien arabera, elkartetik sortutako euskarazko hedabide hauetan jardundako pertsonak azken hilabeteetan markatutako ibilidearekin bat datoz emaitzak eta gainera ekarpen interesgarriak egingo dizkio. Beraz antolaketa kontuetan ez naiz gehiago luzatuko.

Gaiez aldatuta, euskaraz informatzetik haratago euskalduntasuna ulertzeko era zahar bezain berriaren transmitzaile izan behar dute elkartearen hedabideek. Haizeberrik bazkideei begira eta aldizkariak eta telebistak herritarrei begira. Munduko herrien berdintasun eta osagarritasun ikuspegia transmititu behar du, balore ekologikoak (ingurumenarenak bezala hizkuntza eta kulturenak) barneratu eta gizarteratu behar ditu. Euskaldunok lepazurreraino sartuak ditugun gutxiagotasun konplexuak gainditzeko eta zentzitatearen ideia berreskuratzeko baliagarri izan behar dute.

Aldi berean, Lau Haizetara bezalako egitasmoen bozgorailu efizienteak behar dute izan orain artean elkartetik sortutako hedabideetan elkartearen jarduerak ez baitute ia lekurik izan.

Erdal komunitateari begira argitarapenen bat sortzeko aukera aztertzeko beharra dago gazteleratik beste aldizkari bat sortzeko mehatxua behin betirako gainditzeko eta euskara eta euskaldunon mesedetan gazteleratik lan eraginkor bat ziurtatzeko.

4.2.4 Kultura

Existitzen ez den kultur lantaldeari dagokionean berriz inoiz sortuko balitz eginkizun hauxe jarriko nioke: kultur globalizaziokeriaren eta bere ondorioen gainean hausnarketa eragitea.

Lehenik herriko tabernetako arduradunekin, larunbat gauero nahiz zeinahi festetan jartzen duten musikaren gainean hausnar dezaten. Multinazionalek gure mugetatik kanpo eta erabakitzen duten musika bakarrik entzuten baita ia taberna guztietako bozgoragailuetan. Honen aurka joateko intentziorik gabe, kuota sistema proposatu behar zaie hala nahi izanez gero modako euskal abestiak tarteka ditzaten.

Bigarrenik euskalgintzaren gunearen moduko gune bat premiazkoa da kulturgintzan egoera hau gehiago luzatu nahi ez badugu. Gure herrian kultur erakunde desberdinak daude; batzuk iraganeko tradizioa berreskuratzera dedikatzen dira nolabait esateko eta beste batzuk forma berriak esperimentatzen dituzte eta elkarren

artean ez dago apenas komunikaziorik. Honi gehitu behar zaio euskaldunok orain arte gureak izan diren adierazpideak albora uzten goazela eta adierazpide hauen folklorizazio (=fossilizazio) bat gertatzen ari dela; adibide argi bat jartzearen, kantuak eta dantzak eskenatokietara mugatzen ari dira, oholtzetatik kanpo geroz eta gutxiago kantatzen eta dantzatzen dugu. Kultur-globalizaziokeriaz jabetu eta euskalduntasuna bizitzeko era berri bat landu, fossilizazioa gaindituz eta molde berriak esperimentatuz, baliagarriak zaizkigunak gure eginez...